

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



25 urteko jarduna

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak 25 urte bete ditu, eta gazte guneak 10 / 2-3

Ergoienako Udalak hirigintza plana egiteko hitzarmena sinatu du gobernuarekin / 5

Herritarren parte hartze prozesuengatik aitortza Etxarriri eta Bakaikuri / 7

Joanes Bakaikoa: "Greban egon garenak batuta egotea izan da garrantzitsuena" / 13

Osasunak 100 urte bete ditu eta sakandarrek horretan zeresana izan dute / 12

'Birritan bortxatua' antzezlanaren izan da bihar, larunbata, 19:30ean, Arbizuko kiroldegian / 15

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua





Intxostia punta gazte guneko sarrera margotu zutenekoa. UTZITAKOIA

"Gazteen inplikazioa azpimarratzekoa da"

25. urteurrena eta gero Altsasuko Udalaren Gazte Zerbitzuak oso lanpetuta jarraitzen du eta gazteak gogotsu eta inplikazio handiarekin ikusten ditu

Leyre Mateos Galarza ALTSASU

Altsasuko Gazteria Zerbitzuak bere ibilbidea gurekin berrikusi du. Blanki Torresek, gazteria teknikariak, 14 urte daramatza zerbitzu hori aurrera eramaten. Hasieran gazteria gogotsu ikusten zuen eta kristoren lana zegoen egiteko, "gazteek ez zeukaten berezko toki bat ezta politikan gune edo toki bat" dio Blankik.

Duela hamar urte inguru, 2006ean, diagnosis egin zuten eta ehunetik ehunek lokal eta gelen falta sumatzen zutela jakinarazi zuten. Horren ondorioz bazekiten zein izango zen lehenengo pausua. Hasiera hor izan zen, lan askorekin eta Torresek kontatzen duen bezala "horrela jarraitzen dugu, pertsonal gutxi eta lan asko". Hasiera hura gogorra eta lan handikoa izan arren,



Blanki Torres, Altsasuko gazteria teknikaria. LEYRE

teknikariak alde onak gogoratzen ditu "gazteen parte hartzea eta inplikazioa, horrekin gelditzen naiz, eta, azkenean, garrantzitsuena da".

Gazteen inplikazio horrek bizirik jarraitzen du gaur egun eta urtemugako prestakuntzetan nabaria izan da. Aldizkaria prestatzeko lan gogorra eta laguntzeko gogo handia ikusi dituzte gazteen partetik Gazteria Zerbitzuan, horregatik, emaitzarekin oso pozik daude.

Aurrera begira

Gazteria Zerbitzuak argi dauka gazteria politika publikoek orain eta etorkizunean nahitaez kontuan hartu beharreko gaiak direla. 25. urteurrenaren harira argitaratutako aldizkarian azaldu duten bezala, oraingo gizar-

tean gazteak definitzea zaila da eta askotan baldintzatuta daude erakundeetan, eskoletan, legetan, komunikabideetan, politikan eta abarretan ematen zaien irudiagatik. "Batuetan gazte hitza erabiltzean gazte askotaz ahazten garela diote, badaudelako gazte izateko modu desberdin asko" dio teknikariak. Horregatik ezinbestekoa da politika publikoetan desberdintasunak kontuan izatea.

Hau ulertuta Gazteria Zerbitzuen ikuspuntutik Altsasuko herriaren politiken ardatzak "etxebizitza izateko eskubidea, enplegu egonkorra eta soldata duina, osasunerako eskubidea, tratu onak, zainketak eta aisialdi ez merkantilistarako aukerak zabaldu behar dira". Hau da, dauden aukerak baino gehiago eskaintzea izango litzateke, batez ere gaueko aisialdian. Datu horiek zerbitzuak 2006an egindako azterketan lortutako datuak dira. Erronken artean dituzte genero ikuspegia zeharkakoa izatea. Eta, Torresek gaineratu duenez, "berdintasuna lortzeko, dibertsitate funtzionala duten gazteekin lan egin behar da".

Eskaintzak Europak esaten duen moduan 12 eta 21 urte bitarteko gazteendako eginak daude. Baina adin mugak hain zabalak direnez, Altsasun hiru zerbitzu eskaintzen dituzte. Aurrena, Gaztetxokoa, 12 eta 17 urte bitarteko adinekoendako programak dira. Hurrena, Gaztegune, 18 eta 30 tarte-koendako da. Hirugarren zerbitzua Gazte Informazio Gunea da. Azken hori pertsona guztiendako irekia dago. Azkenik, Sexgune sexu aholkularitza ere eskaintzen du Gazteri Zerbitzuak.

2006AN EGINDAKO DIAGNOSIAN GAZTEEN EHUNEKO EHUNEK LOKAL ETA GELEN FALTA SUMATU ZUTEN



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Zerbitsuak gazteendako eskaintza Gure Etxea eraikinean ematen hasi zen. ARTXIBOA



Urteurren bikoitza

Altsasuko Gazteriaren Zerbitsuak 25 urte bete ditu eta Intxostiapunta gazte gunea mustu zutenetik 10 urte pasa dira. Ospakizun bikoitza. Pandemiaren eraginez egoera "desberdina eta arraroa" izan arren, urteurren behar bezala ospatu nahi izan dituzte eta urrian hainbat egitasmo eta jarduera egin dituzte. Gaur urtemuga egitarauari amaiera emanen diote urtemuga aldizkariaren aurkezpenarekin. Aldizkariak gazteria zerbitzuaren eta gazte gunearen historia biltzen du, eta gazteek sortu dute. Gainera, gaur bertan gazteria zerbitzuan egindako jardueren, ekitaldien, jokoen eta abarren argazki eta kartel erakusketa mustuko dute ere.

Baina urteurrena urriaren 3an hasi zuten, Elektrokela elektrotxaranga altsasuarraren emanaldiarekin. Intxostiapunta gazte gunearen patioan egiteko aurreikusita zegoen, baina eguraldi txarra zela eta, bertan dagoen gimnasioan egin behar izan zuten. Erritmoarekin hasi zuten urteurrena. Urriaren 10ean *escape room*-a izan zen eta aurreko ostiralean bertso saioa izan zen. Izan ere, euskara sustatzea da gazteria zerbitzuaren helburuetako bat.



Intxostiapunta gazte gunearen aurkezpena. ARTXIBOA

Gazte agenda

Intxostiapunta gazte gunea egunero zabaltzen dute. Pandemiak eragindako egoera kontuan hartuta, gaur egungo ordutegia 17:00etatik 21:00etara da. Hala ere, ekintza bereziak izaten dira ere. Bestetik, asteburuetarako gustu guztietarako tailer, ekimen, emanaldi eta abar antolatzen dituzte gazte gunean. Gehienak doan izaten dira, eta ordaintzekotan prezio sinbolikoa dute. Esaterako, hilabete honetan Gozamenez film laburren lehiaketaren gala izan zen. Aurreko urteekin alderatuz, aurtengoa xumeagoa izan da egoerak baldintzatuta, baina normalean sari banaketa handia antolatzen dute Altsasuko Udalak antolatzen duen bideo lehiaketari amaiera emateko. Bestetik, billar, ping pong, futbolen eta abarreko jokoen txapelketak antolatzen dituzte, *escape room*-ak, argazkilaritza, sukaldaritza eta abarren tailerrak, bideojoko txapelketak eta abar.

Iaz lehenendabiziko aldiz Sakanako gazte txokoen topaketa egin zen Altsasuko gazte gunean. Irurtzun, Arbizu, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko ehun bat gaztetxok parte hartu zuten eurek sustatutako egitasmoan.

Bestetik, Intxostiapunta gazte gunearen programaren eta zerbitzuen informazioa helarazteko berriemaile programa jarri zuten martxan duela zenbait urte. Berriemaile hauek gazte zerbitzuaren eta ikastetxeen arteko lotura dira. Asteazkenetan Intxostiapuntara joaten dira eta egingo diren ekimenen informazioa jasotzen dute. Hurrengo egunean ikastetxeetan helarazten dute. Berriemaileen lanen artean daude gazteen interesak eta nahiak jakinaraztea ere.

Gozamenez, eta gehiago

Gozamenezsexualitateari buruzko programa oso garrantzitsua dela dio Torresek, eta merezi duen tokia eman behar zaiola nabarmendu nahi du. Programa hori "sexualitateari eta gazteriari buruzkoa da, ni hona etorri aurretik Sakana mailan hasia zen, eta oraindik bizirik jarraitzen du", kontatu digu Torresek. Gainera, genero programa eta kulturen arteko topaketak ere oso garrantzitsuak dira.

Gazteriari eskaintzen zaizkion programak hemezortzi dira aurtent, baina hasiera batean bospasei ziren. Lan asko eta prestakuntza handia behar izan dira guzti horiek aurrera atera ahal izateko. Eskaintzen dituzten programak hauek dira: Prestakuntza eta enplegu programak, aisialdirako programak, sozioekonomia eta natura programak, parte hartze programak (gazte guneko bitartekariak), gazte kulturen arteko topaketak, aurtent urteurrena, ur festa goxoa, Gozamenez, Udagazte udarako kanpaldia, euskara

bultzatzeko programa, generoaren programa, Erasmus programa (gazte trukeak, boluntarioak), Nafarroako Gobernuarekin III. gazteria plana prestatzen ari dira, teknologia berriak, Gu Geu Gazte eta Tratu onen aldeko programa Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera garatzen dena. Aurtent etxebizitzaren gaia jorratu dute.

Egoteko leku bat edo espazio bat zen gazteek duela 25 urte eskatzen zutena, eta duela 10 urte bete zen Intxostiapunta gazte gunearen mustutzearekin. Eraikina mojen ikastetxea zegoen tokian eraiki zuten, musika eskola mustu zuten eraikin berdinean eta bertan gelak mailegatzen zituzten (sukaldea, zibergela, entsegu gelak, gela arruntak gazteek dohainik erabil ditzakete). Musika eta sormenaren aldeko zerbitzuak ere indartsuak dira, eta horiek sustatzeko lokalak eta gelak izateak garrantzia handia dauka. Horretarako, bi entsegu

toki daude eta teknikariak dioen moduan jarraian erabiltzen dira entseguak egiteko, aukera hau nerabe eta gazteendako da.

Pandemia

2020. urtea ez da ohiko egoera inorendako eta Gazteria Zerbitzuak ere egokitu eta neurri berri asko jasan behar izan ditu. Horregatik, metodologia aldatu behar izan dute, momentu batean online egin behar izan zuten. Baina Torresek dioten bezala "gazte arloan beti aldatzen joan beharko gara, gazteen erritmoa oso azkarrak delako eta ezin garelako atzean gelditu". Egoera honetan hainbat gauza derrigorrez aldatu behar izan dituzte: aforoa, gauzak ukitzea, leku batetik bestera mugitzea, eta abar. Baina teknikariak positiboki hartu du egoera eta aurrera begira daude Gazteria Zerbitzuan. Gazteria gogoz ikustea motibazio bat da, beraz, orain arte bezala, uneoro ikasten eta gauza berriak sortzen jarraituko dutela dio Torresek.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Gernikako arbolaren revival-a

Urretxuko bardoaren jaiotzaren 200. urteurrena dela-ta, Iparragirrek, Covid-ak bezalaxe piztualdi nabarmena eduki du azkenaldion gure artean.

Eta ez da kontu txarra halako bohemio, kantari eta kantagile handi horren bizitza eta egintza berriz ere gogoratzea. Izan ere, XIX. mendeko Europa erromantikoa oso egokia suertatu zen munduan barrena etxe finkorik gabe ibili nahi izan zuten artista *hippyendako*, eta gure gitarradun bardo hau giro horretako ispilu bikaina da.

Bere gisara globalizazio prozesu bitxi bat bizi izan zuen: Urretxu, Zerain, Gasteiz, Madril, gerrak, Paris, Londres, Suitza, etxera buelta, deserria Kantabrian nahiz Asturiasen, Argentina, Montebideo... guduz gudu, amodioz amodio eta deserri deseri etxe ondo-ondoan zendu arte.

Gernikako arbola izan zen haren sorkaririk hedatuena, baita arazo anitz ekarri ziona, halako grina eta suhertasun itzela pizten baitzuen euskal herritarren artean. Kanta honek leku polita egin du euskal imajinarioan eta horiek horrela ehundaka

EHUNDAKA ABESLARIK MANIFESTU BATEN BIDEZ ESKATU DUTE KANTA HAU IZAN DADILA EUSKAL HERRIKO ERESERKIA

abeslarik, Evaristok edo Serafin Zubirik barne, manifestu baten bidez eskatu dute kanta hau izan dadila Euskal Herriko ereserkia.

Oker ez banago 1853koa da abestia, eta garai hartan Euskal Herri arras katolikoan "adoratzen zaitugu Arbola santua" idazteak eta ozenki kantatzeak paganismo kutsu

berrizale bat zekarren, beste lerro batzuetan "Jaungoiku jauna" aipatzen bada ere.

Debatea, beraz, hortxe dago. Nik neronek bat egiten dut asmoarekin, baldin eta himnoa lehen ahapaldiaz osatzen bada. Memento gure herriak ez du ereseririk, tira hegoaldeko bi erkidegoek bana dute, eta ez dira makalak, baina zazpi lurraldeendako ez dago (nolanahi ere, agian *de facto Txoria txori* da).

Ea proposamenak bidea egiten duen, eta bidenabarrean esan dezadan, Iparragirreraren bizitzak sei kapituluko telesail on baterako gaia ematen duela. ETB zeren zain dago? Ala utziko dio Netflix-i aurea hartzen?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

ERRAFAILAK SAKANAN, nortzuk gara?

ERRAFAILAK SAKANAN

Azken urtean eskualdeko txoko ezberdinetan gure presentzia nabaria izan da. Altsasuko 2019ko jaietan eraso matxisten kontrako elkarretaratzea deitu genuen, emakume andana bilduz. Lizarrako Euskal Herriko Neska* Gazteen topaketan egon ginen, 400 emakumetik gora bildu zituen. Gure eskualdean egin nahi eta COVID-19arengatik ezin egin izan diren Udaleku Feministen antolakuntzan ibili gara. Azken hilabeteotan, normalitate berria desnormalizatzeko kanpaina abiarazi dugu. Finean, egunerokotasuneko egoerei

erantzuteko asmoz lanean ibili gara.

Eta galdetuko zenioten zuen buruei, nortzuk dira neska* hauek? Erantzuna argia da, Sakanako saretze eta lanketa feministaren beharrari erantzuteko asmoz elkartu garen neska* feminista taldea gara. Bestalde, neska* gazte subjektu politikoa ezaugarritu eta neska* gazteen problematika zehatzak mahaigaineratzeari begira sortutako taldea da gurea.

Eta, berriz ere galdetuko zenioten zuen buruei, zergatik Errafailak? Eta beste behin, erantzuna argia da. Errafaila Sakanako mitologiako

pertsonaia da, kondairek, sorgin bat zela esaten dute, sorgin "gaizto" bat. Baina sorginaz haratago, Errafaila indarraren eta boterearen seinale zen, gizartean onartzen ez ziren jokabideen pertsonifikazioa. Errafailak, berak, bere barne indar eta kemena betikotzea nahi zuen, hilzorian bere izatea beste emakume bati pasatuz, gaur egunera arte. Horregatik guk pertsonaia hau gureganatu nahi izan dugu, "gaiztakeria" eta gizartearekiko desobedientziaren izaeraren isla moduan.

Aurkezpen honi itxiera emate aldera, dei egiten diogu eskualdeko neska* gazte orori feminismoaren baitan antolatuta eta indarrak batu ditzagun!

Errafailak gara, eta Sakanan zehar gaude! Sorgiñik badago, etzago! Tarranpatta-pattan!



OBJEKTIBOTIK

GUAIXERen bi lan finalistak dira TOKIKOM Sarietan

Bosgarren urtez jarraian, TOKIKOMek TOKIKOM Sariak emanen ditu aurten ere. Finalisten artean GUAIXERen *Mozorrotu zaitetz gurekin* azala eta *Batzen gaituena* dokumentala daude, azalik onena eta ikus-entzunezkorik onena izendatuta, hurrenez hurren. Berrikuntza gisa, laugarren sari bat ere izango da aurten: Komunitatearen saria. Epaimahaiak proposatutako bederatzi finalistaren artean, publikoaren bozka gehien jasotzen dituen lanak eramango du sari hori. Bozkatu zure finalista gogokoena.

TOKIKOM SARIAK 2020

Finalistak



Mozorrotu zaitetz gurekin



Batzen gaituena

<https://labur.eus/TokikomSariak>

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Pabxi Flores Lazkoz

Kolaboratzailea:

Leyre Mateos Galarza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada:

3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Hirigintza planari bultzada hitzarmen bidez

Ergoienako Udalak eta Nafarroako Gobernuak plana egiteko hitzarmena joan den ostegunean sinatu zuten. Indarrean den hirigintza araudia 1996koa da, udala berritzen saiatu denean trabak izan ditu

ERGOIENA

Ergoendarrek udalari hirigintza planagatik makina bat kexa egin dizkiote azken urteetan. Izan ere, 1996tik eguneratu gabe dago. Beharrezko moldaketak egin bazaizkio ere, azken hiru udalek hirigintza araudia berritu beharra zegoela sumatu zuten. Horretan ere ahalegindu ziren. 2008an hasi zen Ergoienako Udala hirigintza plana egiten. Lurralde Okupazio Estrategia eta Eredua txostena egin eta Nafarroako Gobernuari aurkeztu zion. Eta ez zuten erantzunik jaso. Udalak lanak egin ondoren, gobernuak bere partea bete ez zuela sentitu zuten udaletxean.



Jose Maria Aierdi eta Emeterio Senar hitzarmena sinatzen. NAFARROAKO GOBERNUA

Aurreko legegintzaldian, Ergoienako Udalak hirigintza plana egiteko lanak eman zituen. 2018ko maiatzean, udalekideak eta udal arkitektoa ibarreko hiru herrietan izan ziren. Bilera erronda horren asmoa izan zen ergoendarren iritzia jasotzea, gero planean islatzeko. Hirigintza planari bultzada eman dion azkena Emeterio Senar Elso alkateak eta Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak joan den ostegunean sinatutako agiria da.

Hitzarmena

Ergoienako hirigintza plana egiteak 48.000 euro balio ditu eta adostutakoaren arabera, kopuru horren %80 gobernuak pagatuko du. Gainera, exekutiboak aurrera egin du hirigintza planaren tramitazioan, garapen jasangarria sustatzeko, indarra duen lurralde plangintzako tresnen zehaztapenekin bat. Aurreikusitakoaren arabera, 1996ko planean jasotakoa irizpide nagusiak mantenduko dituzte, plana ez baita garatu.

Hiru herrietan guztira 30 etxe eraikitzea aurreikusi da; Lizarraga ipar-mendebaldean eta Unanu eta Dorraoko mendebaldean. Udalak ez du herri lurrik etxebizitza politika garatu ahal izateko. Bestalde, jakinik mendizale ugari Unanitik abiatzen direla Beriain mendia igotzera, herri sarreran ibilgailuendako aparkaleku bat egitea aurreikusi da.

Ergoienako bide sarearen ardatz dira NA-120 eta NA-7100 errepideak. Gaur egun biak asfaltatutako dermioko bi bideren bidez lotuta daude eta hiru herrien arteko joan etorriak errazten dituzte. Bi errepideak batuko dituen bide berri bat egitea aurreikusi da. Baina oraindik ez da zehaztu non egingen den. Haren iparraldean, zehaztu gabeko tokiren batean, industriarako eremu estrategikoa aurreikusi dute. Horrekin batera, Zalduko Zubi industrialdea bermatu egiten da. Alkateak azaldu duenez, "etxe berriak egiteko eta etorkizuneko industria garapenarako lurzoru gordetzea Ergoienaren despopulazioaren fenomenoaren geldiarazteko ahalegina dira".

Igerilekua araudira egokitzeko lanak hasiak

Hoditeriak eta punpak berrituko dira, besteak beste. Igerilekua "pixka bat handiagoa" izanen da

LAKUNTZA

Lakuntzako igerilekuan kisugileak lanean daude hilabete hasieratik. Izan ere, Lakuntzako igerilekuak ez zuen Nafarroako Gobernuaren araudia betetzen. Igerilekuak egokitzeko epea aurtan bukatzen zen. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak jakinarazi duenez, "COVIDarengatik epe hori 2021eko akaberara arte luzatu du gobernuak. Guk erabaki genuenez igerilekuak aurtan ez zabaltea eta diru saila onartuta genuenez, erabaki genuen lanak orain egitea".

Construcciones Florencio Suescun S.L. enpresak hartu ditu lanak. Eta haiek bi hilabetetan egitearen truke 185.137,90 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Igerilekuko hoditeria guztia aldatu eta diametro handiagoko hodiengatik ordezkatzeko dute. Horrekin batera, ura arazteko makinak

ere berrituko dituzte. "Igerilekuko ur guztiak denbora tarte jakin batean araztegitik pasa beharra dauka, eta hori ez genuen betetzen. Hodien diametroagatik, punpen tamainagatik eta abarregatik zen". Gainera, oso zaharrituta zegoen". Alkateak esan duenez, lanen ondoren "metro gehiegi ez badira ere, igerilekua handiagoa izanen da".

Bestalde, alkateak jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak despopulazioari aurre egiteko, COVID-19ak eragindako gastuak arintzeko eta erabilera askeko dirulaguntzetako dirua aurtan haurtzaindegian eta musika eskolan sortutako zuloak estaltzeko bideratuko ditu udalak, baita igerilekuko lanen aurrekontua berdintzeko ere. Azkenik, alkateak jakinarazi du eskolako garbiketarako pertsona bat gehiago kontratatatu duela udalak.



- BETIKOIA -

Saski beltza



- EKOLOGIKOIA -

Saski berdea



- BEREZIA -

Saski zuria



%25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara + saski bakoitzeko 5 euroko ekarpen gehigarria AEKri

Azaroaren 12ra arte

www.errigora.eus

"Hiketa gizonen artean mantentzen da"

MARTA LOPEZ, PATXI FLORES, IZASKUN ERRAZKIN HIKETA IKASTAROKO ARDURADUNAK Udazken honetan Etxarri Aranazko Udalaren ikastaro eskaintzan berritasuna hiketa ikastaroa izan da. Bosna emakumezko eta gizonzko eman dute izena.

ETXARRI ARANATZ

Nori bururatu zitzaion udalaren ikastaro eskaintzan hiketa ikastaroa sartzea?

Marta. Herritar baten proposamena izan zen. Emakumearen egunarekin lotuta, berak esaten zuen, noketa bazegoela eta zerbaitegin beharko genukeela. Gaia Euskara Batzordera eraman genuen eta baiezkoa eman zitzaion. Eta herriari galdetzen hasi ginen, ideiak zein babes izan zezakeen jakiteko. Babes txiki bat bazegoela ikusita aurrera egin genuen. Formatuaren inguruan, Patxiri deitu genion eta ideia bat eman zigun, Euskara Batzordean onartu egin zena.

Hiketan edonorekin eta edozein momentutan ezin zen hitz egin.

M. Hala da. Nire etxean, esaterako, gurasoei hiketan ez. Zaplaztako bat jasotzeko modukoa zen. Arauak zeuden.

Patxi. Gure etxean beti hiketan hitz egin izan da. Lau anai gara eta anaion artean hiketan hitz egiten dugu. Gurasoak, bai aitak bai amak, guri hiketan, baina beraien artean zuketan hitz egiten zuten. Nik aditzera daukat garai batean bikotea sortzen zenean, senar-emazte egin baino lehen, beraien artean hiketan aritu zitezkeela. Baina ezkontzen ziren momentutik badirudi beste egoera batean sartzen zirela eta beraien artean zuketan hasten ziren.

Izaskun. Lagun giroan gehien bat gizonzkoen artean mantendu da toketa. Emakumezkoen artean gutxiago. Herri batzuetan gehiago edo gutxiago. Eta Patxik esan duenaren aldetik, senar-emazteen artean hiketan hitz egitea errespetu faltarekin eta halakoekin lotu izan da. Gogoan dut Goenkale puri-purian zegoenean, Txapas zenak adin guztietakoekin hiketan hitz egiten zuela, gazteagoekin, zaharragoekin... Eta nire amonak ez zuen batere gustoko: "errespetu falta!" esaten zuen.



Marta Lopez, euskara zinegotzia, eta Patxi Flores, AEK-ko irakaslea.

"EMAKUMEZKOEN ARTEKO TRANSMISIO HORI MOZTU EGIN DA. NOKETAN GUTXIAGO ENTZUTEN DA"

P. Hiketa lagunaren artean eta antzeko adinekoen artean hitz egiten da. Hau da, zaharragoak gazteagoi bai, baina gazteagoak zaharragoi adin tarte handi xamar batean, jada, ez. Hurrengo belaunaldikoei gazteek zaharragoi hiketan hitz egitea ez zegoen ongi ikusirik. Kontua da gaur egun jaisten-jaisten joan da eta... Eta, gero, lehen gurasoek umeei zuketan egiten zioten eta urte batzuk hartzen zituztenean gurasoak hiketara pasatzen ziren. Semeari edo alabari hiketan egiten badiozu berak hiketan erantzunen dizu. Horregatik, lehen-dabizi zuketan ikasi eta gero hiketara pasatzen ziren. Nik semeari hiketan egiten diot eta berak zuketan, batuan. Baina, gutxienez, jakin dezala.

Etxarrin hiketan hizketatzen da?

M. Gizonzkoen 60 urtetik aurrerako kuadrilletan oraindik

asko aditzen da. Adineko senideen artean ere bai. Gero ikusi dut Patxiaren kasua: aitak semeari hiketan hitz egitea, nahiz eta besteak ez erantzun. Semeari, alabari ez. Gizonzkoen artean transmisio hori badago. Emakumezkoen artean askoz ere zailagoa da. Badago bakanen bat zurekin elkartu eta noketan naturaltasunez hasten dena. Gero ere badago jakin eta erabiltzen ez duena. Kanean ez du presentziarik.

I. Nik ez dut etxean jaso. Aita anaiarekin toketan aritzen da, esaterako. Eta kuadrillan lagun batzuekin ere. Adin batetik aurrera, pixka bat koxkortuta, nire anaiak aitari pixka bat tiratuta, hor, momentu batean hasi zen aita etxean hiketan egiten. Gehiago nire anaiarekin, nirekin baino. Hori joera orokorra izan da. Beraiek jaso dute eta beraien artean mantendu dute. Baina ondorengook ez dugu ikasi.

P. Etxarrin Arbizon baino lixtoago hasi zen hiketa galtzen gazteen eta emakumezkoen artean. Euskal Herrian noketan oso gutxitan entzuten zaie.

M. Emakumezkoenganako transmisio hori moztu egin da. Gutxietsi egin da.

I. Emakumezkoek halako lastasuna ez zitzaion gustatzen. Joera orokorra da. Arbizon hiketa osasuntsuago egon daiteke. Etxarrin 60tik gorakoak aipatzen genuen, Arbizon gazteagoek ere egiten dute. Baina gehiago giza-kiak. Bestalde, Jose Luis Erdozia Mauleonek bilketa lan batzuk egin ditu eta berak ere hori aipatzen du: joera orokorra, emakumezkoena gehiago galdu da. Eta esaten du Burunda aldean atzerako joera duela hiketak. Hor ere dexente galdu dela. Arbizon orain dela urte batzuk, ikastaroa baino gehiago, Mintzakide formatuan egin zuten; taldea elkartu eta hitz egin. Kasu horretan noketan egin zen. Bai hiketarekiko kezka hori badago.

Noiz izanen da ikastaroa?

M. Lastailaren 17an hasi behar ginen. Atzeratu da eta, ustez, azaroaren 7an hasiko da. Larunbatetan da, 10:00etatik 12:00etara. 8-9 saio izanen dira.

Nolako ikastaroa izanen da?

P. Ni, lehenbizi, pozik hamar lagun bildu direlako. Abiatzeko oso kopuru polita da. Pena da Etxarrin grabazio asko daudela www.ahotsak.eus webgunean bilduta, baina ez dago ezta bat ere hiketan. Klasea eman daiteke, baina eredu eta adibiderik gabe abstraktuagoa egiten da. Politagoa da klasea ematea eta lortzen badugu kontakturen bat edo beste grabatu. Hura entzun eta komentatzen duzu, nola esan du hau, zergatik esan du bestea, zer momentutan erabiltzen den hiketa, zein momentutan ez...

I. Patxik detektatu zuen hiketan ez zegoela grabaziorik. Berak eman zigun ideia horretatik abiatuta, bideoan grabatu ditugu etxarriarrak hiketan, batzuk toketan eta besteak noketan. Talde horrek barruan zuten aktorea atera dute eta lan erabilgarria izan daitekeela uste dut.

P. Ikastaroa despedituta, aukera eman dakiok jende horri, edo nahi duen guztiari, Mintzakide moduan segitzeko, astean behin elkartu eta hiketan aritzeko.

Praktikatzeako aukera egonen da?

M. Gure ikuspuntutik hau hasiera da. Bukatzean ikusiko dugu nola jarraitu, zer forma eman. **I.** Bada pixka bat lotsa gainditzea. Salto hori eman behar duzu, klasetik hitz egiterako saltoa egitea. **P.** Ikasi arte ariko zara batean zuketan, hiketan... Hasieran nahasian eta gero... Ikastaroa bulkada txiki bat da, animatzeko.



Isabel Balda elkarrizketatu zuten. UTZITAKOA

Artzain Eguneko bideoa sarean ikusgai

artzaieguna.eus gunean ikusgai dago. Egunaren garrantzia zein den azaldu dute hainbatek

UHARTE ARAKIL

Osasun krisiagatik aurten ospatzekoa zen 53. Artzain Egunik ez zuen antolatuta Aralar Mendi elkarrekin. Hala ere, agorriaren 30ean egunarekin lotura duten zazpi pertsona gonbidatu zituzten Uharthe Arakilerako elkartekideek. Artzain Eguneko jarduerak aipagarriak izan ziren guztiak, eta haiek elkarrizketatu zituzten. Elkarrizketatuek haien bizimodua, egunarekin duten harremana Artzain Egunak beraiendako zer esanahi duen edota jaiak zer suposatzen dien azaldu zuten.

Kameraren aurrean jarri ziren Jose Mari Ustarroz (antolatzailea), Lazaro Milikua (artzain txakurren txapelketako epailea), Iñaki Idoate (gazta txapelketako epailea), Maite Lasarte (ardi lehiaketako epailea), Melquiades Hidalgo (moztailea), Adriana Ojer (artisaia), Isabel Balda (gaztagilea) eta Antonio Alustiza (artzaina). Aralar Mendi elkarretik azaldu dutenez, ikus-entzunezko "Nafarroako artzain guztiendako 'omenaldia' izan nahi du. Aldi berean, antzinako lanbide horren zabalkunderako eta sustapenerako bidea eman nahi du eta euren produktuak ezagutzera ematen eta merkaturatzen lagundu nahi du".

Hilerria, lanengatik, astelehenean itxiko dute

Ehorzketak edo hobitik ateratzeak egiteko zabalduko da bakarrik. Domu Santu Eguna igandean da eta jende pilaketak eragozteko udalak altsasuarrei eskatu die hildakoak gogoratzeko kanpo santurako bisitak aurreko egunetan egitea

ALTSASU

Domu Santu Eguna igandean izanen da aurten. Eta Hilan Eguna edo Arimen Eguna astelehenean, azaroak 2. Egun horretan Altsasuko Udalak kanpo santua itxi egingen du. Izan ere, hilerriaren alde zaharreneko pasabideetako zoladura berritzeko lanak hasiko dira. Beraz, astelehenetik eta lanak despeditu arte, hilerria jendearendako itxita egonen da. Bi kasutan bakarrik zabalduko da: ehorzketak edo hobitik ateratzeak egiteko.

Aipatutako pasabide edo korridoreen zoladura berritzearekin batera, haietan eroritako euri ura jasotzeko eta bideratzeko lanak ere egingen dira. Horietaz Construcciones Boreste, S.A. enpresa arduratuko da. Lanen truke 35.388,64 euro jasoko ditu (BEZ kanpo). Lanak despeditu eta gero kanpo santuko korridore guztiak berrituta egonen dira, izan ere, hilerriko alde berrian antzeko lanak egin ziren 2015ean. Eta 2016an horma hobi berriak jarri ziren.

Beste lan batzuk

Burunda pilotalekuak jarduera sailkatuari buruzko araudira egokitzeko eta, hartara, irekitzeko lizentzia lortzeko lanak eman ditu Altsasuko Udalak. Instalazio



Kanpo santuak bisita ugari hartu ditu aste honetan.

honek 1954. urtetik gaur arte funtzionatu du, lizentzia hori gabe. Lanak Aguaser, Suministros y Servicios SM enpresak egingen ditu eta horien truke 71.312 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu.

Bestetik, Altsasuko Udalak Ibarrea industrialdeko saneamendu sarearen lanen bigarren eta azken zatia egiteko lanak eman ditu. Lacunza Hermanos SM enpresa izanen da lan horiek egingen dituen eta haiengatik 199.353,38 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Udalak hasierako egitasmoan aldaketa bat egin zuen

eta, ondorioz, industrialde inguruko eraikinen ur beltzak ere jasoko dira: Errotatxiki, Ibar-musu eta Ameztia. Bestalde, Excavaciones y Transportes Orsa SM-ak asfaltatuko du Otadiko bidea. Lanak abenduaren 15erako despedituta egon beharko du. Eta haren truke enpresak 30.578,36 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Azkenik, joan den astean Alde Zaharreko argiteria publikoan bonbillak LED argiekin ordekatu zituzten. Telman SL enpresak lan horiengatik 44.599,86 euro (BEZ kanpo) jaso ditu.



Bakaikuarrak plan estrategikoa lantzeko bileretako batean. ARTXIBOA

Parte hartzearen arloko jardunbide egokiagatik aitortza

Nafarroako Gobernuak aitortza egin die Etxarri Aranazko eta Bakaikuko udalei parte hartze prozesuengatik

ETXARRI ARANATZ / BAKAIKU

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria Javier Ramirez Apestegiak herritarren parte hartzearen arloko jardunbide egokiaren aitortza egin die Etxarri Aranazko Udalarari eta Bakaikuko Udalarari. Aurrenak plaza ingurua hobetzeko garatutako parte hartze prozesuagatik jaso du foru administrazioaren aitortza. Hurrenak, berriz, herriaren gaineko hausnarketa estrategikoa egiteko parte hartze prozesuagatik.

Remirezek esan duenez, "Nafarroako Gobernuak herritarren parte hartzea garatzeko konpromisoa hartu du, batetik, demokratizatze eta jendartera irekitzeko eta hurbiltzeko bitartekoa delako eta, bestetik, laneko metodologia bat delako, aukera ematen duena elkarrizketa eta deliberazio publikoa sustatzeko

governantza publikoaren funtsezko baliabideak diren aldetik".

Nafarroako parte hartze demokratikoari buruzko legean jasotako neurrietako bat da protokoloak martxan jartzea, aitor daitzen administrazio publikoek, sindikatuek, enpresek eta abarrek herritarren parte hartzearen arloan dituzten jardunbide egokiak. Aurten 19 hautagai aurkeztu ziren 4 mailatan. Epaimahaia haiek baloratu ondoren, toki entitateen mailan Etxarri Aranazko eta Bakaikuko udalak izan dira aitortza jaso dutenak.

Parte hartze prozesuaren ondorioz Etxarriko udaletxe parean oinezkoendako zabalguneko berria egin, kioskoa berri eta hari itsatsitako estalope berria egin zen. Bakaikun, berriz, herriko plan estrategikoa egin eta hiru lehentasun markatu zituzten: etxebizitza, eskolen eraikina eta auzolana.

Elkarrekin
indartuz



Miuch' k
mu'uk ankunskakbáaj

Yuyuym irratiarekin senidetzea:
Testu trukea hilabetean behin

www.guaixe.eus-en



www.yuyuym.org

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -



Lakuntza

Etxera eramateko
gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680




Aralarko santutegia zazpi egunez itxita

Atzo itxi zituen ateak eta heldu den ostegunean zabalduko ditu atzera ere. Santutegiari itsatsia dagoen Deierri etxeko lanekin batera, haren kontra dagoen santutegiko nartexko teilatuan egokitzapen lanak egiten ari dira

UHARTE ARAKIL

Maiatzaz geroztik ari dira kisugileak Aralarko santutegiaren ipar-mendebaldean dagoen Deierri etxea konpontzen. Santutegiaren nartexa edo eliza aurrea hari itsatsia dago eta bere teilatua egokitu beharra dago. Horregatik, atzotik heldu den ostegunera arte, Aralarko santutegia itxita egonen da. Hala jakinarazi du Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak. Ondorioz, igandero 12:30ean izaten den mezarik ez da izanen asteburuan. Bide batez, kofradiak jakinarazi du santutegiaren inguruko gainerako zerbitzuak (jatetxea eta taberna) itxita daudela pandemiaren eraginez.

Deierri etxearen zaharberri-tze lanek urte bat iraunen dute. Aurreikusitakoaren arabera, negurako teilatua egin izan nahi dute, gero eraikin barruko lanak egin ahal izateko. Hiru solairu eta guztira 195,73 m²-ko azalera duen eraikina zaharberritzeko 450.000 euro bideratuko dira. Eraikina janzteak beste 100.000 euro balioko du. Aurrekontu horri aurre egiteko, santutegiak bere funtsetatik 60.000 euro jarriko ditu, artzapezpikuak 100.000 euro, 50.000 euroko mailegu bat eskatuko dute eta gainontzeko 340.000



Deierri edo Lakuntzetxeko lanak. ARTXIBOA

euroak mezenasengandik jaso nahi dituzte.

Mezenasgoa

Izan ere, lan horiek interes sozialeko izendatu ditu Nafarroako Gobernuak eta Mecna zigilua eman dio. Ondorioz, lanetarako dirua ematen duten Nafarroako pertsonak eta enpresek zerga desgrabazioa izanen dute. Esate baterako, 150 euro ematen dituen pertsonari Nafarroako Gobernuak errenta aitortpenen %80 (120 euro) desgrabatuko dio. Kopuru horretatik gorako dohain-

tzen kasuan desgrabazioa %40koa da. Horren onuradun izateko diru ematea izen-abizenekin eta nortasun agiriaren zenbakia emanez egin behar da.

Enpresen kasuan sozietatezergako zerga oinarrian kenkaria izanen dute. Gainera, 300 euro ematen badituzte kuota-likidoan %30eko kenkaria izanen dute, %20koa gehiago bada. Bai pertsonak bai enpesez ES11 3008 0045 98 4071845517 kontu korrontean sartu behar dute dirua eta gai gisa "Aralarko santutegia Mezenasgoa" jarri behar dute.



Joan den urtean egindako Ibilbide Beltzako une bat. ARTXIBOA

Gau Beltza dela eta, hitzordua kultur etxean jarri dute

Larunbatean, 18:30ean eta 20:00etan, kultur etxean ipuin kontaketa izanen da Pikuxarrek antolatuta

IRURTZUN

Negu garaiko festen zikloko aurreneko ospakizunetako bat zen Gau Beltza, Domu Santu egunaren bezperan egiten zena. Arbiak hustu, aurpegi itxura emateko zuloak egin, kandelatxoak barruan jarri eta jendea beldurtzeko erabiltzen zuten. Aiton-amonek bizitakoa ez da guregana iritsi. Bai, ordea, hedabideen indarrez Halloween ospakizuna, gurean gero eta haur gehiagok ospatzen dutena gozoki bilketa eginez.

Horretaz jabetuta, Pikuxar euskal txokoak duela lau urte Gau Beltzaren berri emateko jarduerak antolatzen hasi zen lastailaren 30ean. Joan den urtean 250 bat pertsona elkartu zituen Ibilaldi Beltza egin zuten herriko basoan barna. Jende gehiagok parte hartu nahi izan zuen, baina ikuskizunak ez zuen gehiagorako ematen. Parte hartzaileak ibilbidean zehar mitologia per-

tsoniaiak, kontalariak eta beste-lako "sustoak" opatu zituzten.

Plan aldaketa

Pikuxarreko Txape Iriartek azaldu duenez, "aurtengorako dena prest zegoen. Ion Barbarin, Izaskun Mujika, Igor Lanz, Yurena Perez eta Lorena Arangoa aktoreekin hitz egin zegoen, haiek ibilaldian zehar aritzeko. Baina pandemiagatik bertan behera utzi behar izan dugu". Eta duela bi urteko plana berreskuratu dute: ipuin kontaketa saioa egitea. Aipatutako aktoreetatik aurreneko hirurak izanen dira horren ardura dutenak. Kultur etxeko aretoa misterio kutsuz apainduko dute eta mitologia pertsonaiaren batek ere agerraldia egin dezake. Emanaldi bakoitzean 40 pertsona besterik ezin izanen dira egon. Sarrerak gaur, 18:00etatik 19:00etara, osasun etxe parean eskura daitezke.

Aurten ez da Patata Operazioaren 58. ediziorik izanen

Antolatzaileek mojen kongregazioaren aldeko diru ekarpenak egiteko deialdia egin dute

SAKANA

Alegria de Iruña peñako kideak aurten ez dira jakiak eskatzen ibiliko. Fernando Setoain Jaurrieta peñako kideak azaldu duenez, "azaroaren 8an joan behar ginen bazkideak Sakana-

ra, urtero moduan ohiko Patata Operazioa egitera. Baina COVID-19ak eragindako osasun egoeraren ondorioz, aurten ez dugu Hermanitas de los Pobres kongregazioaren aldeko jaki bilketarik egiten".

Mojen kongregazioa lagundu nahi dutenek haien egoitzara (Iruñeko Buztintxuri auzoan, Gipuzkoa etorbidea 38.) eraman ditzakete jakiak (patatak, kuiak, kuaixoak, babarrunak, sagarrak, intxaurreak...). Bestela, diru ekarpena egiteko aukera dago. Horretarako, ES62 2100 91 61452100020177 kontu korrontean erabili daiteke. "Kontuan izanik zertara bideratzen den, ahal den neurrian, sakandarrak eskuzabalak izatera animatzen ditugu".



Peñakoak jatekoak biltzen. ARTXIBOA

Olatzagutian alkate berria izendatzeko tramiteak egiten

Olatzagutiko alkate Roberto Martinez Mendiak arrazoi pertsonalak argudiatuta dimisioa eman du. Udaleko bederatzi zinegotzietatik EH Bilduk sei ditu eta gehiengo osoarekin gobernatzen du. Gelditzen diren zinegotzien artean alkate ardura zeinek hartuko duen ikusi beharko da orain. Hutsik dagoen zinegotzi postua betetzeko aukera du ere.

TIOKA TARRITZA

MERKATIKO



DENDAK - ALTSASU - TRADIZIOA
KALITATEA - GERTUTASUNA

MODA. OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK:
Asensio Moda, Calzados Bengoetxea, Ekin Moda, Iulene, Joselen-
Joss, Katuka, Larra Emakumea Gizona, Mari Carmen, Marigori,
ML Moda Hombre, ML Moda Mujer, Pimpilinpauza Moda Infantil,
Sare Oinetakok, Tu tienda Especial, Txittxo

BURUNDEGIAK:
Electricidad Ramos
Electrodomesticos Ramos
Gertu Sakana

OSASUNA:
Optika Sakana
TEKNOLOGIA:
Xagu Informatika

PROFESIONALA - JASANGARRIA
KONFIANTZA - ESPERIENTZIA

LIBURU-DENDAK:
Arkatx Liburudenda
Liburunda Papeleria
Txartel Kopia

LOREDENDAK:
13 Udaberri Loredenda
Lore eta belardenda Lorea

OSTALARITZA:
Akeita Kafetegia
Gautxori Taberna

HIGIEZIAK:
Inmobiliaria Agurain

ELIKADURA:
Cristina Janari denda
Carniceria Sorkunde

ETXEKO DENDAK:
Muebles Sta. Cruz
Cortinas Izara

ASEGURUAK:
Allianz Seguros
(Hnos. Sayas)

25^{urte}
años



Alsasuko Dendarien Elkarte
Asociación de Comerciantes de Alsasua

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 30

ALTSASU Intxostiapuntaren eta gazte zerbitzuaren urteurrena: Urtemuga aldizkariaren eta argazki eta kartelen erakusketaren aurkezpena.

17:30ean, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Sex gunea: Sexualitate gazte zerbitzua.
Doakoa eta konfidentziala.
18:00etatik 21:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Oinak buruan: Nafarroko Eskolarteko bertso saioa. Sarrerak doakoak; udaletxean edo nafarroa@bertsozale.eus helbidean erreserbatu daitezke.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Mikologian hastapenak: Genero arruntenak ezagutzeko tailerra.
Aldez aurretik izena eman behar da micologiaalsasua@gmail.com helbidean edo lortia kultur gunean.
18:00etatik 19:30era, Gure Etxean.

ALTSASU Azken ostirala.
Altsasuko Sarearen Euskal Presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
19:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Ipuinen unea: Lur Usabiagaren Etxean goxo ipuin kontakizuna.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Javier Liñeraren Barro Rojo ikuskizuna.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskaraldia
Batordearen izena emateko eta informatzeko mahaiaik.
19:30etik 21:00etara, Foru plazan.

SAKANA Azken ostirala. Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz. Euskal presoak, Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 31

ETXARRI ARANATZ Udazkena Sakanan: Gure ibilbideak ezagutzuz. Shinrin yoku baso bainua ibilbide gidatua. Ondoren, Sakanako produktuekin azatea.
10 euro. Izena emateak: goazenbidaiaik@gmail.com edo 650023698.

ALTSASU Pepita eta Elisa Uriz Pi. Badostainetik Mendebaldeko Berlinera. Uriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa.
Azaroaren 3tik 12ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan 18:30ean eta igandetan 19:00etatik 21:00etara. lortia kultur guneke erakusketa aretoan.



ALTSASU Intxostiapuntaren urtemugaren argazki eta kartel erakusketa.
17:00etatik 21:00etara.
Intxostiapunta gazte gunean.



09:00etatik 12:00etara, kanpinean.

ALTSASU Barranka Txirindularitza Taldeak 40 eta 50 kilometro bitarteko ibilbidea eginen du.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Gau beltza. Ipuin kontaketa: Ion Barbarin, Izaskun Mujika eta Igor Lantz.
Sarrerak aldez aurretik erosi behar dira osasun etxeko atean. 2 euro.
18:30ean eta 20:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda: Gau beldurgarria. 1,5 euro.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Mikologian hastapenak: Genero arruntenak ezagutzeko tailerra.
Sarrera mugatua; aldez aurretik izena eman behar da micologiaalsasua@gmail.com helbidean edo lortia kultur gunean.
18:00etatik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU Birritan bortxatua antzezlana. Sakanako Mankomunitatearen Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
19:30ean, kiroldegian.

ALTSASU Gillem Albaren Calma! ikuskizuna.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEA
ARETO NAGUSIA

Akelarre gaurkotasunezko filma

Ostirala 30: 19:00

Akelarre gaurkotasunezko filma
Igandea 1: 19:30

Rifkin's festival gaurkotasunezko filma
Osteguna 4: 19:00

ORTIA KULTUR GUNEA
ARETO TXIKIA

Ane zineforum filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 1: 19:30

Verano del 85 zineforum filma
Osteguna 4: 19:00

IGANDEA 1

IRURTZUN Udazkena Sakanan: Saien balkoia ibilbide gidatua. Ondoren, auzatea.
10 euro. Izena ematea: info@mirua.com edo 608560369.
09:00etatik aurrera, plazan.

ALTSASU San Lorenzo ermitara 49 kilometroko ibilbidea eginen du Barranka txirindula taldeak.
09:00etan, Urbasako portuan.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

BAZKIDE ZOZKETA SARIDUNAK:

1. ERKUDEN BARANDIARAN GOÑI (Bakaiku)
2. EDURNE GOIKOETXEA SAN ROMAN (Altsasu)
3. XABIER REPARAZ EXTRAMIANA (Arbizu)
4. MAIALEN PELAEZ LETONA (Altsasu)

AZAROKO SARIAK

1. SARIA:

EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilbaetaz doan

EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:

DONOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

EREIN: Argitaletxearen liburu bana



lacturale

DOÑOSTIA / SAN SEBASTIAN
AQUARIUM

gaztezulo

Ekain berri

CAMPING
ARTAZA

KEIN

DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarras.com • www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ZORION AGURRAK



Ibai
Zorionak Ibai! 11 urte betetzear, familia guztiaren partez!



Aintzane
Nahiz eta pixka bat berandu izan... Zorionak Aintzane! Gozatu 18 urteez eta ea elkar ezagutzeko aukera dugun! Zure miresle ezutuaren partetik. Muxu bat!



IRAGARKI SAILKATUAK

ERRENTAN HARTU
Sakanan, gutxienez 3 metroko altuera duen bajera baten bila gabiltza, errentan hartzeko, Lakuntza inguruan bada hobe. Amaia 616 554 180. Milesker.

LAN ESKAINTZA
Etxarriko Danbolintxulo haur ludotekarako lanpostu sartzeko interesik baduzu, bidali zure kurrikuluma gure emailera: danbolintxulo@ludoteka@gmail.com. Ezinbestekoa euskarako C1a izatea eta haur hezkuntzako goi zikloa baloratu da.

IKASTAROA
Business Intelligence: Power BI tresnaren aukerak ezagutzeko saioa: Jardunaldia %100 diruz lagunduta dago, eta Nafarroako enpresetako langileei eta edozein enplegu bulegotan eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeei zuzenduta dago. Azaroaren 11an, asteazkenean, goizeko 10:00etatik 13:00etara Altsasuko lortia Kultur Gunean. Izena emateko galdetegi bete hurrengo helbidean: <https://www.clubdemarketing.org/inscripcion.aspx?dato=332020141>.

IKASTAROKA
Irurtzungo I. Argazki-lehiaketa: Irurtzungo Udalak antolatuta, 16 urteik gorako pertsona guztiek parte hartu deza-

ket. Aukeratutako argazkiak egutegia egiteko erabiliko dira. Bi gai: 1.) Paisaiak eta ondarea 2.) Jai eta kultur ekitaldiak Irurtzunen. Lanak aurkezteko eguna azaroaren 16an izango da argazkiakirurtzun@gmail.com helbidera edo USB batean kultur etxean entregatuta. Informazio osoa: www.irurtzun.eus weborrian.

Gazteentzako zientzia eta tekniko bideo lehiaketa Elhuyarrek antolatuta: 12-18 urteko gazteei zuzendua eta bakarka edo taldeka (4 gehienez) parte hartu daiteke. Saria Futuroscope parke-rako 2 eguneko bidaiak. Parte hartzeko baldintzak eta informazioa www.zientzia-azoka.elhuyar.eus weborrian. Izena emateko epea gaur amaitzen da.

OHARRAK
Odol emateak Olaztin: Azaroaren 5ean, 17:00etatik - 20:30ra.

Intxostiapuntako ordu-tegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik - 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekingintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralerara 07:30tik 15:00etara eta asteazkenean 07:30etik - 12:00etara eta 17:00etatik - 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net

altsasu.net + gazteria@altsasu.net

Altsasuko Txantxari ludoteka: Izena ematea Ludotekan bertan. Ezeztapenak gaur arte. Ordu-tegiak: 2012-2008 (astelehen, asteazken eta ostiraletan 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (astelehenetik ostiralerara 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehena, asteazken eta ostiraletan 18:30-20:00). Aurten 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiek izena eman behar dute talde egonkorrek sortzeko helbururarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / ludoteka@altsasu.net.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkuntzako oihitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegiak duzu informazio guztia.

Arropa bilketa: Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenetan, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzea. www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Mame Diarra Diouf**, urriaren 4an Lakuntzan
- **Eleimy Noelia Martinez Vasques**, urriaren 11n Olaztin
- **Izei Nuñez Gurutzarri**, urriaren 14an Lizarragan
- **Lander Lizarraga Goikoetxea**, urriaren 17an Urdiainen

EZKONTZAK

- **Imanol Vitar Ortega eta Izaskun Retegi Martiarena**, urriaren 26an Uharte Arakilen

HERIOTZAK

- **Miguel Angel Altuna Lakuntza**, urriaren 4an Irurtzunen
- **Katalina Araña Mendinueta**, urriaren 16an Arbizun
- **Ursula Lasa Ezkerra**, urriaren 17an Lizarragan
- **Felisa Bermejo Guzman**, urriaren 24an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

Zure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

DUELA 25 URTE...


Ispording Hispania SA handitzen

Ibarrea industrialdean zegoen Ispording Hispania SA (gaur egun Altsasuko Kooperatiba) bere lantegia handitzeko pabiloi berria eraikitzen ari zen. Zuzendaritzak erabaki zuen Alemaniako ekoizpena Altsasura ekartzea. Handitutako lantegian Alemanian erabilitako makina eta tresneria berria jartzekoak ziren. Lanak 1996ko urte hasierarako despiditza eta 40 lanpostu berri sortzea aurreikusten zuen enpresak.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Osasunak ere badu sakandarretik pixka bat

Osasunaren mende bateko ibilbidean sakandarrek ere tokia izan dute, bai zelaian bai zuzendaritzan ere. Gainera, talde gorritxoak makina bat zale ditu gure ibarrean. Futbol taldeekin hitzarmenak eta futbol eskolak ere martxan daude

SAKANA

Mendeurrena garaipenarekin ospatu zuen Osasuna futbol taldeak larunbatean. Iruñeko futbol taldeak Nafarroako makina bat zale ditu eta herrialdearen irudia ere bihurtu da. 100 urteko historian makina bat jokalaria, entrenatzaile, prestatzaile eta zuzendaritzako kide pasa dira talde gorritxotik. Segidan datorrena sakandarrek Osasunako lehen taldean utzitako arrastoaren isla da.

Jokariak

Antonio Sanchez Altunaga olaztiarrak Osasunarekin hiru denboraldi jokatu zituen: 1958-1959, 1959-1960 eta 1960-1961. Aurreneko bi denboraldietan lehen mailan aritu zen eta azkenekoan bigarren mailan, igoera lortu zuten arren. Erdilari olaztiarrak aurreneko denboraldian 7 partida jokatu eta bi gol egin zituen. Hurrengo denboraldietan 17 partida eta bakarra jokatu zituen.

Iñaki Berastegi Araña arbizuarra 1988-1989 eta 1989-1990 denboraldietan jokatu zuen Osasunarekin lehen mailan, 9 eta 23 partida hurrenez hurren. Aurreko aldean jokatzeko zuten eta azken denboraldian gol bat sartu zuen. **Txomin Nagore Arbizu** irurtzundarrak bi denboraldi egin zituen Osasunarekin bigarren mailan: 1995-1996 eta 1996-1997, 20 eta 25 partida. Erdilaria zen eta Osasunarekin lehen mailan jokatu zuen aurreneko denboraldian gol bat egin zuen.

Iker Estarriaga Gaston etxarriarra 1998-1999 denboraldian Osasunako lehen taldekoa izan zen. Denboraldi hartan taldea bigarren mailan zegoen. Erdilari etxarriarrak ez zuen partidarik jokatu Osasunako lehen taldearekin. Amona irurtzundarra izateagatik Irurzun gisa ezaguna egin zen **Ismael Marchal**



Lakuntzako zaleek Enrique Martini eta Oierri festetan egindako harrera. ARTXIBOA

SAKANAKO HIRU FUTBOL TALDEEK OSASUNAREKIN HITZARMENA SINATUTA DUTE

Razkin. 1999-2000 denboraldian jokatu zuen, bigarren mailan eta igoera lortu zuten. 25 partida jokatu eta gol bat lortu zuen.

Aitor Lorea Bergara Osasunako lehen taldean egon zen 2016-2017 denboraldian. Olaztiarra aurreko jokalaria zen, baina denboraldi hartan ez zuen partidarik jokatzeko aukerarik izan. **Endika Irigoien Bravo** 2019ko martxoaren 2an debutatu zuen lehen taldearekin. Osasuna bigarren mailan zegoen eta denboraldi hartan igoera lortu zuen. Ezkerreko defentsa urdiaindarrak bi partidatan 51 minutu jokatu zituen. Aurreko denboraldian eta oraingo honetan ez du lehen taldearekin partidarik jokatu

Zuzendaritzan

Aparteko aipamena merezi du **Javier Bakaikoa Martich**

etxarriarrak. 1994 eta 1996 urteen artean Osasunako buru Javier Garro zela, Bakaikoa lehendakariordea izan zen. Osasunak sekula izan duen mezenas handienetako bat izan zen eta taldeak, esker onez, Taxoareko zelai bati bere izen-abizenak jarri zizkion. Osasunako ohorezko lehendakariorde izendapena du. Osasunaren zuzendaritzan **Pedro Oteiza Maiza** egon zen 1996 eta 1998 urteen artean, Juan Luis Irigarai presidente zela. Oteizak ama arbizuarra du eta herriarekin erlazio handia du.

Bestalde, gaur egungo Osasunaren talde teknikoan bi sakandar daude. Alde batetik, **Asier Urkia Ijuria** etxarriarra lehen taldeko fisioterapeuta da. Bestetik, **Iokin Lobo Ieregi** Osasunako harrobietako prestatzaile fisikoen departamentuko koordinatzailea da.

Osasunak 138 futbol taldeekin hitzarmenak ditu eta tartean daude Lagun Artea, Etxarri Aranatz eta Altsasu. Bestalde, talde gorritxoak gaur egun Lakuntzan eta Etxarri Aranatzan ditu futbol eskolak.



Guztien ahaleginak du saria helmugan, auzate ederra. ARGAZKIA

Aurten Altsasuko San Silvestre lasterketarik gabe

Nafarroako proba beteranoena dena bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek, pandemiagatik

ALTSASU

Urteko azken eguna korrika egiten despeditzea berezia da sakandar askorendako. 41 urtez jarraian, huts egin gabe, jokatu izan da Altsasuko San Silvestrea, baina aurten ez da posible izango. COVID-19 birusak sortutako pandemiak bere horretan jarraitzen du eta antolatzaileek, Dantzaleku Sakana Atletismo Taldeak eta Sakana Triatloi taldeak, aurtengo San Silvestrea bertan behera uztea erabaki dute.

Altsasuko San Silvestrea Nafarroako beteranoena da, eta korrikalari sakandarrendako

proba herrikoi kuttuna. Joan den urtean, esaterako, 600 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte, kategoria txikiak eta proba nagusia kontuan hartuta. Sergio Garcia de Eulate altsasuarra eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren txapelkunak. Aurten, tamalez, ezingo da jokatu. "Penaz, baina egoera larria da eta antolakuntzatik lasterketa bertan behera uztea erabaki dugu. Gure indar eta ilusioak datorren urteko 42. edizioa egiteko gordeko ditugu. Bitartean, elkar zain dezagun" adierazi dute antolatzaileek.

Xota puntuak eskuratzeko ideiarekin doa

Larunbatean Irurtzungo taldeak hiruna berdin duen etxean Lugoko Burela taldearen kontra. Sei jardunaldiren ondoren Osasuna Magna Xota sailkapenean zazpigarrena da 8 punturekin. Liderra Levante da, 15 punturekin. Larunbatean irurtzundarrekin Antequeraren zelaian jokatu dute. Malagarrak sailkapenean 16. dira eta sei partidatan 4 puntu pilatu dituzte. Irurtzundarren erizaindegiak min hartutako lau jokalarik ditu. Azkena, Dani Zurdo izan da. 21 urteko jokariak ezker hankan zuntz haustura du eta bi astez bajaran egonen da. Joan den ostiralean ere ezin izan zuen jokatu. Min hartuta daude ere Mancuso, Tony eta Wanderson.

Pandemiak herri kirolariak ezin lehiatu utzi zituen

Euskadiko 3. mailako Aizkora Txapelketako azken bi kanporaketak jokatu ziren Araban asteburuan. Hamaikana aizkolarik lehiatzekoak ziren kanporaketa bakoitzean. Lehiatzekoak ziren 22 aizkolarien artean bost nafar zeuden, kanporaketetan parte hartzeko aukerarik ez zutenak izan pandemiagatik ezarritako neurriengatik herrialdeko ezin izan baitziren atera. Egoera horretan daude Iker Gorriti eta Goizeder Beltza aizkolarik sakandarrak. Bi kanporaketak jokatu ziren, baina ezin parte hartu gelditu ziren 7 aizkolariek kanporaketa jokatu dute. Baina ez da hurrengo 2 astetan jokatu.

"Greban batuta egotea izan da garrantzitsuen"

JOANES BAKAIKOA PILOTARIA

Pilotari guztiei eragingo dien akordioa lortu dute EPEL enpresen ligak eta pilotariek. Pilotarien aldarrikapen gehienak kontuan hartu dira eta "oso pozik" daudela dio Bakaikoak

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI A.

Asteartean iritsi zen albiste ona: EPEL (Esku Pilota Enpresen Ligak) eta EPEL-en lehiaketetan parte hartzen duten 45 pilotarietatik 44 pilotari akordiora iritsi ziren. Ondorioz, Baikoko 15 pilotarik urriaren 9an abiatu zuten greba bertan behera geratu zen. Grebalarien artean zegoen Joanes Bakaikoa aurrelari etxarriarra. Bi aldeek lortutako akordioa sektoriala da, hau da, pilotari guztiei eragiten die, bai Baikokoei eta baita Aspekoei ere, eta Baikoko grebalariek eskatzen zituzten ia aldarrikapen gehienak aintzat hartu dira akordioan.

Bi aldeak akordiora iritsi zarete eta greba bertan behera utzi duzue. Zorionak Joanes!

Eskerrik asko. Urriaren 9an hasi ginen greban; ez da denbora gehiegi pasa, baina askoz ere denbora gehiago pasa izanaren sentazioa dugu. Halakoetan ibiltzen ez gaude ohituta, eta, egia esan, nahiko luzea eta gogorra egin zaigu.

Akordioa ongi hartu duzuela pentsatzekoa da, zuen eskari ia gehienak aintzat hartu dituztelako.

Bai. Guk eskatzen genituen aldarrikapenaren puntu asko, gehienak, hor daudela esan daiteke, eta pozik egoteko arrazoiak



Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra. BAIKO

ditugu. Zer pasako zen zalantza genuen, baina ongi atera da eta pozik gaude, eskari gehienak lortu ditugulako.

Akordio hau sektoriala da, pilotari guztiei eragiten dizuen, ez bakarrik Baikokoei, baizik eta Aspekoei ere. Horrek garrantzi handia du, lorpen handia da.

Bai. Guk hasieratik argi utzi nahi izan genuen gurea ez zela soilik gure alde egiten genuen borroka, pilotaren alde egiten genuen zerbait zela, globalki, eta pilotari guztiendako eta ondorengoendako ere zerbait onura-

garria egiteko asmoa genuela. Hortaz, akordioa denendako da ona, pilotarendako bereziki, eta horregatik gaude pozik, pilotan halakorik inoiz ez delako gertatu. Eta hau oso garrantzitsua da. **ELA sindikatuak adierazi du honek erakutsi duela sindikatu batean**

"HASIERATIK ARGI GENUEN GURE BORROKA PILOTARI GUZTIEN ALDEKOA ZELA"

antolatuta egoteak duen garrantzia; lan baldintzak hobetzeko bermea dela.

Hasieran ez ginen sindikatua-rekin lanean hasi baina denon artean hitz eginez eta bozkatzuz erabaki genuen ELA-rekin hastea. Bileran dezente egin ditugu, sindikatuak aholku asko eman dizkigu eta arlo guztietan lagundu digu; eskertzekoa izan da.

Aurreko astean, egoera desblokeatu nahian, Ezkurdiak, Altunak, Urrutikoetxeak eta Olaizolak pilotari elkarte bat sortzeko proposamena egin zuten. Uste duzue akordioa lortzeko bidean horrek ere eragina izan duela?

Gertatutako guztiak izan du eragina: grebak, Binakako finala ez jokatzeko auzitegiak hartutako erabakiak eta baita honek ere. Beraiek pisu handia duten pilotariak dira, eta laguntza ere bada. Baina nik azpimarratu nahiko nuke garrantzitsuen izan dela greban egon garen pilotariak batuta egon garela. Hori ez dakit noizbait pilotaren munduan gertatu den. Denak batuta egon gara, eta elkartasun handia eskaini diogula bata besteari. Joseba Ezkurdiak eta egin duten ahalgina eskertzekoa da. Zalan-tzarik gabe, uste dut borondate onez egin dutela. Akabera hau, akordioarena, onuragarria da pilotarendako.

Lortutako akordioari esker, Baikok Eskirozen, Estebanen, Lasoren eta Mariezkurrenaren kontratuak berrituko ditu, epe ezberdinetan. Akordioak 8 puntu jasotzen ditu pilotariei dagokienez. Tartean, pilotarien gutxieneko soldata 25.000 eurokoa izango da urtean, betiere jaialdiak gutxienez %80ko aforoarekin egiten hasten direnetik aurrera. Norgehiagoka es-

telarra jokatzegatik ere gehigarri bat jasoko dute pilotariek, eta Hego Euskal Herritik kanpo jokatzen dutenean ere gainsariak izango dituzue. Soldata baxuenak dituzten pilotariei esklusibitate klausulak malgutzea ere adostu da, eta pilotariek aukeratu ahal izango dute enpresak zuzendutako entrenamenduetara joan edo euren kontura entrenatu. **Eta beste hainbat konpromiso hartu ditu ere EPEL-ek. Kontentu egoteko modukoa, ezta?**

Bai, hau lortzeko lan handia egin dugu denon artean. Esan dudanez, gure helburua, hasieratik, pilotaren onerako zerbait egitea zen, denondako onuragarria dena. Zaila izan da, baina lortu dugu, lan asko egin ondoren. Orain egin behar dena pilotaz hitz egitea da.

Pilotaz hitz egingo dugu, beraz. Grebarekin eta azken gertakarietara txapelketak eten egin ziren. Zure kasuan, lastailaren 2an, Etxarri Aranatzen Buruz Buruko Txapelketako atariko irabazi zenion Arteaga II.ari (22 eta 14) eta Buruz Burukoan aurrera jarraituko duzu. Noiz itzuliko da Banakako txapelketa?

Enpresak guztia lotzen ari dira, baina badirudi lehendabizi Buruz Buruko Txapelketa hasiko dela, datorren asteburuan, azaroaren 6tik 8ra bitarteko asteburuan. Lehenik eta behin Buruz Buruko eta ondoren Binakakoa jokatuko direla dirudi. Eta nire kasuan, Buruz Burukoan hastera gogotsu nago.

"AKORDIOA PILOTARENDAKOA ONA DA, ETA HORREGATIK GAUDE POZIK GUZTIAK"

**C.A. OSASUNA
ATLETICO MADRID**



URRIAK 31, LARUNBATA

18:30-20:30

(IRRATIKO KONEXIOA 18:15EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia^{.eus}

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Javier Liñeraren 'Barro Rojo' antzerkia. UTZITAKOA

Ikerketa lan bat izan zitekeen antzezlan

Javier Liñeraren 'Barro Rojo'-k homosexualek Alemaniako kontzentrazio esparruetan eta Frankismo garaiko kartzeletan bizitakoaren erradiografia egiten du. Narratzailea Amalia transformista da, istorioari bizitasuna ematen diona

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Duela hainbat urte Javier Liñerak kontzentrazio esparruetan izandako gayen inguruan jakin-mina izan zuen eta gaiaren inguruan ikertzen hasi zen. Hamar urtez antzerki konpainia batean egon ondoren, utzi zuen, eta arte eszenikoak alde batera uztea pentsatu zuen. "Teleoperadore hasi behar nintzen lanean". Baina ahots ikastaro batean Lidia Wisek noizbait zuzendu nahi zuela esan zion. *Barro Rojo* proiektu pertsonal bat bezala sortu zuen, eta ez zuen emanaldi asko ematea espero. Mustu zuenetik lau urte inguru pasa dira, eta oraindik antzokietan dabil. Gaur, ostirala, 19:00etan, Olaztiko kultur gunean egonen da.

Barro Rojo antzezlanaren protagonista eta pertsonaia bakarra Amalia transformista da. Osabak Alemaniako kontzentrazio esparruetan eta frankismoaren garaiko kartzeletan bizitakoak kontatzen ditu. "Kontatzeko behar hori dauka". Liñerak transformista bat

aukeratu zuen 1976. urtean oraindik ere arrisku legea indarrean zegoelako, eta haien eskubideengatik borrokan "lehen lerroan" egon zirelako. "Horren atzean ere esparruetan zuten bizitasuna ez galtzeko nahi hori dago. Bertan ikuskizunak egiten zituzten, ezkutu. Gaietiki maiz bat jartzen zuten eta abesten zuten". Bizitzari hortzak erakusten zizkioten.

Prozesu "gogorra"

Antzezlanaren sortzeko prozesua "interesgarria" izan zela esan du Liñerak. "Zerbait pertsonala zen, proiektu pertsonal bat bezala hartu nuen, ez nuen uste funtzio asko egingo nituenik". Interes pertsonala zuen kontzentrazio esparruetan homosexualak nola bizi ziren jakiteko, "homosexualak baino gay-ak. Lesbianak ez ziren existitzen. Emakumeek ez zuten sexurik, ezin zuten plazerrik sentitu. Pentsaezina zen bi emakume elkarrekin egotea". Esparruetan transexualak ere bazeuden.

Ikertzen hasi zenean material asko jaso zuen. "Ez neukan gertuko inor horrelako egoerarik pasa zuenik, baina istorioan interesa neukan". Esaterako, homosexualendako espazioak zeudela eta kontzentrazio esparruetatik lan esparruetara eramaten zizutela. Kanariar irletan homosexualendako esparru bat zegoen, edo esparruetan homosexualak identifikatzeko hiruki identifikatibo handiagoa eramaten zuten.

"Garai horretan gizartearen estamentu guztietan gaizki ikusita zegoen homosexuala izatea". Gaur egun arte "sentsazio" hori mantendu dela esan du Liñerak, eta gai honen inguruan pelikularen eta antzerkiren bat egin diren arren, oraindik ezezaguna dela azaldu du. "Berdin gertatzen da ijitoekin, horiek ere esparruetan egon ziren, baina haien istorioak ez dira oso ezagunak".

Liñerak aurretik ez zuen antzezlanik sortu. Baina laguntza handia izan duela esan du: "An-

toni Ruizekin hitz egin nuen eta GEHITUren elkarrekin ere ondoan izan dut beti". Ruiz 17 urterekin homosexuala izateagatik atxilotu zuten, arrisku legean oinarrituta. "Kontatzeko modua aurkitzea izan zen gauzarik zailenetarikoa. Informazio asko neukan, eta gauzak baztertzen hasi behar nintzen". Prozesua Linda Wise eta Daniela Molina zuzendariarekin egin zuen. "Entseatzeko hasi nintzen eta testua sortzen joan nintzen". Alde batean utzi zituen gaien artean emakumearen egoera eta transexualen egoera izan ziren. "Uste dut beraiei dagokiela kontatzea".

Momentu batzuetan "gogorra eta zaila" izan dela aitortu du antzerkigileak. "Dokumentu horiek fikzionatu behar nituen, inoiz egin ez dudana, eta zikintzen ari nintzela iruditzen zitzaidan".

Orduan, Alberto Conejero antzerkigilearekin hitz egin zuen eta ezetz esan zion, "sentsibilitatearekin egiten delako". Ruizek ere antzeko zerbait esan zion: "Material horren guztiaren artean istorio txiki bat kontatzeko esan zidan". Material horrekin sentsibilitatearekin eta kontu handiarekin jolastu zuen.

Prozesuan lan egitea gustatzen zaio Liñerari. "Bide bat sortzen da, hausnarketarako tartea. Istoria aldatuz joaten zara". Horretarako ezinbestekoa da antzezlan batean parte hartzen duten hiru elementuak prozesuaren hasieratik presente izatea: artistak, publikoa eta programatzaileak. Haien iritziekin eta entseguen bidez testua sortzen joaten dira. "Testua material bat baino ez da; eszenografia edo aktoreak bezalakoak".



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Udazkenerako hiru proposamen

La isla de las mujeres del mar

Lisa See

Jeju irlako antzinako ohiturak ezagutzeko aukera izango duzu liburu honetan, batez ere, haenyeo emakumeen urpeko arrantzaren ohitura. Hori guztia modu dinamikoan kontatuta eta berehala harrapatuko zaituzten bi emakume protagonisten istorioa ardatz duela. Hiroshimako bombardaketaren aurretik, Jeju irlan japoniarren eskutik jasandako sarraskia, hilketak eta txikizioa ezagutuko dituzu, gizakion historiaren alde gogorra baztertu gabe. Gaur egun, haenyoak, gizon-emakume guztien ondare izendatuta daude.

Zein usain dute oroitzapenek?

Maddi Etxeberria

Astean bat, bi... eskutitzen bidez kontatzen dio lagunari bere bizitza berria: lagun berriak, Euskal Herriarekin gordetzen duen harremana, Anderrekin duen harremana, irakasle lanean nola sentitzen den... Urte batean zehar idatzitako eskutitz hauek Gaiaren bizitza kontatzen dute sinpleki.

Eskutitz bidez idatzita dagoenez, irakurteraza eta

oso dinamikoa egiten da. Gazteei zuzendua, baina edozeinek irakur dezake, batez ere, euskaraz irakurtzeko nagikeria edo "pereza" daukatenendako. Amaieran trama guztia argitzen da.

Gau beltza

Joseba Ozaita eta Joseba Larratxe

Gau Beltza edo denok ezagutzen dugun Halloween ate joka daukagu eta hona hemen orain arte kontsumo gizarte honetan, egun horri buruz jaso dugun informazioa alde batera utzi, eta naturarekin lotuta dagoen beste azalpen bat ematen digun eleberria.

Josu Ozaitak, pasa den urtean, 'Itzalitako kalabazen berpiztea' liburua idatzi zuen, eta bertan, Euskal Herrian garai batean egun hau ospatzeko modua azaldu zigun, egindako ikerketa etnografikoan.

Gau Beltza liburuarekin, berriz, gazteengana hurbildu nahi izan du haiendako gaiari lotuta dagoen eleberria idatziz. Anari haserre dago; Halloween ospatu nahiko luke, baina amak ezetz dio, jai arrotza dela eta ez duela baliorik sustatzen. Kontua aldatu egiten da aitonak umetan haiek ere ospatzen zutela kontatzen dienean. Anarik irrikaz lotuko ditu hariak, eta lagunekin batera gaurkotuko dute arbasoen ohitura bat: Gau beltza.



Nafarroako Eskolarteko txapelketako Etxarriko saioan parte hartuko duten bertsolariak.

Oinak buruan bertso saioa Etxarri Aranatz

Gaur, ostirala, 18:30ean, Nafarroako Eskolarteko txapelketa izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean

ETXARRI ARANATZ

Segurtasun eta osasun neurri guztiak beteta, gaur, urriak 30, ostirala, 18:30ean, Nafarroako Bertsozale elkarteak antolatzen duen Nafarroako Eskolarteko Oinak buruan txapelketaren saioa izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Zazpi bertsolari gazte ariko dira.

Iruñetik Ainhoa Arrizabalaga eta Bittori Elizalde, Barañaindik Amaia Lasheras eta Beñat Astiz, Bortzirietatik Ekhiñe Zapiain eta Etxahun Azkarraga eta Leitzatik Eki Mateorena. Azken orduko aldaketak izan dira, hasiera batean Lide Arrieta gazteak ere parte hartu behar zuelako. "Aldaketak eguneroko gauza bihurtu direlako", Leire Barberena Nafarroako Bertsozale elkarteak kideak azaldu duenez.

Etxarri Aranatz eginen den saioaren sarrerak doan dira eta udaletxean edo nafarroa@bertsozale.eus helbidera idatziz erreserbatu daitezke. Osasun neurrietan oinarriturik, edukia %30era mugatua dago momentu honetan; "egia esan, Etxarriko kultur etxearen tamainak eta kopuruak posible egiten du entzule kopuru polit bat izatea". Bestetik, osasun neurri guztiak betetzen direla bermatu da. "Gozagarrria eta segurua izanen da".

Elkarteko kideak azaldu duenez, Nafarroako Eskolarteko Txapelketa bertsolari gazteen bakarkako txapelketa bat da. 14 eta 18 urte arteko bertsolariak parte hartzen dute. Nafarroako

Bertsozale elkarteak antolatzen du, Nafarroako Ikastolen Elkarteen laguntzarekin. Arratsaldeko saioa Etxarri Aranatz jokatu denez, udalaren laguntza jaso dutela ere gaineratu du Barberenak.

Lehenengo Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa 1986. urtean jokatu zen, eta urtero ospatzen da, Barberenak azaldu bezala. Bere garaian, gaur egun izen handiko bertsolariak direnak pasa izan dira.

Bertso aroa

Azaroaren 5ean 2020ko Bertsoaroa hasiko da. 30. edizioa izanen da aurtengoa. Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsolari Elkarteak elkarlanean antolatzen dute, eta hiriburuan bertsolariak sustatzea du helburu. Zazpi saio antolatu dituzte azaroaren 26ra arte. Zikloan parte hartuko duten bertsolarien artean sakandarrak daude: Saats Karasatorrek *Bertso jasa*, bat-bateko jolasa haurrentako tailerra eskainiko du Saioa Alkaizarekin batera, azaroaren 21ean, Mendillorriko Civivoxean eta Eneko Lazkozek bertso aroaren amaierako Bertso Jaialdian parte hartuko du, azaroaren 26an, 19:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

'Birritan bortxatua', drama indartsu bat

'Birritan bortxatua' antzezlana izanen da bihar, urriak 31, larunbata, 19:30ean, Arbizuko kiroldegian. Sakanako Mankomunitateak antolatu du emanaldia, Azaroaren 25eko egitarauaren barruan. Bortxaketa batean emakumeek sufrizten duten istorioa islatzen du

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

2002. urtean Ion Martinez baka-rrizketak egiten hasi zen. 2008an antzerki tailerretara eta ikastaroak jasotzen hasi zen eta bi urte geroago Aldatzen laguntzen antzerki taldea sortu zuen Oteizari buruzko antzezlana taularatzeko. "Antzerki talde gisa hainbat erronka jorratzea gustatzen zaigu". Otsailean *Birritan bortxatua* antzezlana mustu zuten, taldearen laugarren lana. Azken hiru antzezlanetan Saioa Royorekin lan egin du Martinezek. "Horrekin ari gara orain, ahal den heinean emanaldiak egiten". Bihar, larunbata, 19:30ean, Arbizuko kiroldegian izanen da. Sakanako Mankomunitateak Azaroak 25 Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren harira antolatutako egitarauaren lehenengo ekimena da.

Antzerki taldea, beraz, gizarte gaiak jorratzeko sortu zuten. "Azken antzezlana ere *Ametsen zirkoa* salgai gizarteari, euskarari eta euskalkie buruz zen, umore absurdoan". Hurrengo lanean estiloaz aldatzea erabaki zuten: "Gu antzerkilari gisa handitzeko eta drama jorratu nahi genuelako". 2016. urtean hasi ziren gaiari bueltak ematen. Urte horretan Manadaren auzia deitutako talde bortxaketa izan zen eta Donostian emakume bat joko sexualak egiten ari zela telefonoarekin grabatu eta bideoak Whatsapp bidez zabaldu zituzten, oihartzun handia izan zuen kasuak ere. "Hortik abiatu ginen eta ideia lantzen hasi ginen". *Birritan bortxatua* sortu zuten, "jendeari erakusteko emakumeak biktima bikoitzak direla: Bortxatua denean eta ostean, epaiketan eta prozedura horretan guztian".

Beharra

"Nire kasuan aktore gisa derri-gorrezkoa ikusten dut horrelako gaiak antzerkiaren bidez lantzea". Antzerkia arte adierazkor bat



Ion Martinez eta Saioa Royo aktoreak 'Birritan bortxatua' antzezlanean. UTZITAKOIA

"DERRIGORREZKOA IKUSTEN DUT HORRELAKO GAIK ANTZERKIAREN BIDEZ LANTZEA"

dela azaldu du Martinezek, "oso zuzeneko", eta jendeak aktoreak erabiltzen dituen energia, sentimendu eta testua jasotzen dituela esan du: "Horrelako drama indartsu bat eginda ikusten dugu jendeak oso zuzenean jasotzen dituela mezuaketa sentimenduak". Antzerkiak magia hori du.

Birritan bortxatua antzezlana sortzeko Iruñean izandako taldeko bortxaketa eta Donostiako kasu ez ezik, "emakumeek bortxaketara iritsi aurretik sufrizten duten beldurra eta esperientzia txar" guztietan oinarritu dira. "Ikusi genuen horrelako asko iritsi zitzaizkigula, mezu asko jaso genituen, eta antzerkian islatu nahi genituen". Bortxaketara iritsi aurretik emakumeak egoera asko jasaten dituela azaldu du antzerkigileak: "Komatxoan artean, beste maila batean daudenak, baina eraso matxistak

eta sexistak dira". Antzezlana sortzeko, beraz, informazio gehiena Internetetik lortu dutela azaldu du Martinezek, "Manadaren epaiketa osoa eskuragai dago". Bestetik, emakume taldeetan ere oinarritu dira lana osatzeko.

Entseguetan "deseroso" sentitzen zirela esan du Martinezek, "eta hori ikusten genuenean ondo gindoazela pentsatzen genuen". Antzezlana berak idatzi du eta buruan zituen ideiak Royori helarazi zizkion. Taularen gainean entseatzeko jarri ziren, eta esperientzia "gogorra" izan zela aitortu du. "Momentu gogorretara iritsi nahi genuelako eta horietara iristeko denbora eta entsegu asko behar dira. Tentsio asko sortzen da". Tentsio hori sortzen zenean bide horretatik jo behar zutela pentsatzen zuten: "Ikusten genuen ikusleagoak hori ere sentituko zuela".

Birritan bortxatua antzezlana-aren akzioa erdian gertatzen da, eta publikoa lau aldetan eserita dago. Koronabirusagatik eszena batzuk moldatu behar izan dituzte, baina bestela Arbizuko emanaldian ere publikoaren eta akzioaren arteko harreman hori mantenduko da.

"Musika oso presente izango dudala badakit"

Irrati bat bezalakoa dela esaten dio aitak Maddi Urkijo Zarrantzi, izan ere, egun osoa abesten pasatzen du. Bideoak egiten hasi zen, eta azkenean sare sozialetara igotzeko pausoa eman zuen. Duela gutxi Zut aldizkari digitalean agertu zen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nondik datorkizu musika zaletasuna?

Txikitatik abesten dut. Betidanik. Lehengusua gitarra jotzen hasi zen eta nik berarekin abestu izan dut. DBH 3. edo 4. mailan txirula jo behar genuen, baina ni ez nintzen batere trebea eta irakasleari ea abestu nezakeen esan nion. Baietz esan zidan. Beraz, txirula jo beharrean abestiak kantatzen nituen. Irakasle batek ahots polita nuela esan zidan, eta Kantu Jaialdira aurkeztea proposatu zidan. Joan nintzen, eta ordutik aurrera abesten jarraitu dut.

2 Gitarra ere jotzen duzu, ezta?

Alaitzen arte eszenikoetako batxilergoa egiten ari nintzenean gitarra jotzen genuen, baina hiru edo lau akorde. Horrekin moldatzen naiz. Ez dut klaserik jaso. Joan zen urtetik kantu eskola batean nago.

3 Zut aldizkarian agertu zara. Nola sortu zitzaizun aukera?

Nire lagun batek serie aplikazio bat egin du eta Zut aldizkarian horri buruz hitz egiten agertu zen. Elkarriketa bat egin zioten. Orduan ezagutu nuen aldizkaria



Maddi Urkijo Zarrantzi, abeslaria da eta gitarra jotzen du. UTZITAKOIA

eta deskargatu nuen. Ondoren, idatzi zioten galdetuz ea abesten zuen edo instrumenturen bat jotzen zuen norbait ezagutzen zuen, kantautoreen atal bat egin nahi zutelako. Nire izena eman zuen eta bi bideo bidali nizkien.

4 Aurretik bideoak egiten zenuen?

Nik nire etxean egiten nituen, baina ez nituen inon igotzen. Behin bat egin nuen eta esan zidaten: "Zergatik ez duzu igotzen?". Animatu nintzen eta noiz-

behinka igotzen ditut orain. Lotsa ematen zidan. Baina azkenean igo nuen.

5 Eta zerk lagundu zizun bideoak igotzera?

Ez dakit. Beti izan dut nire ahizpa oso presente. Beti animatu nau bideoak grabatzera eta igotzera. Beti esaten dit: 'Goazen gitarra hartzera eta kantatzera!'. Beti izan dut bera laguntzen. Ez dirudi, baina oso lotsatia naiz. Igo dudaz azken bideoa maiatzean grabatu nuen eta urrian igo dut.

6 Nola grabatzen dituzu bideoak?

Normalean akordeak begiratzen ditut eta ez badakizkit tonoa aldatzen dut. Gero gitarrarekin hasten naiz erritmoa lantzen. Ondoren, grabatzen hasten naiz. Agian grabatzen dut eta ez zait gustatzen nola geratu den, eta berriz grabatzen dut. Azkenean bat gustatzen zaidanean, gordetzen dut eta ahizpari erakusten diot. Gustatzen bazaio igotzea edo ez pentsatzen dut. Pixkanaka lotsa kentzen ari naiz. Lehen lagunek abesteko esaten zidaten eta ezetz esaten nuen. Orain gitarra hartzen dut eta abesten egoten gara.

7 Bertsioak egiten dituzu?

Bai. Egin ditut doinuarekin letra aldatu, baina abesti oso bat hutsetik konposatu, ez. Letrak aldatzea gustatzen zait. Estilo guztietan mugitzen naiz. Berdin zait gauza bat edo bestea. Aitak esaten dit irratia ematen dudala: abesti bat, gero beste bat...

8 Salto hori ematea aurreikusten duzu?

Lehengusuarekin hasiko naiz. Hitz egin genuen, eta elkarrekin

zerbait egingo dugu. Bera oso ona da musikarekin eta ni letrekin. Elkartzen bagara, ea zer ateratzen den. Elkarrekin noizbait aritu gara, senideen ezkontzetan eta aitonaren hiletan, baina talde bezala inoiz. Ez gara talde bezala ikusten. Berak badu bere taldea. Bere taldearekin kolaboratzeko esaten diot askotan. Noizbait neska baten ahotsa behar badute esateko. Baita txalaparta behar badute ere.

9 Txalaparta jotzen duzu ere.

Txalapatarekin hasiginen aitak jotzen duelako, eta txikitatik irakasteko eskatzen genion. Baina aitak ez zizun erakutsi nahi. Guk baietz. Amari esaten genion aitari esateko. Azkenean, ikasten hasiginen. Baina kostatu zitzaion. Orain oso pozik dago. Gure arteko zerbait da.

10 Etorkizunean zer egingo duzu? Musikarekin zerikusirik duen zerbait?

Zaragozan Genero Berdintasunean Promozioa ikasten ari naiz. Ez dakit horren inguruko zerbait egingo dudan edo ez. Oraindik ez dut nire burua inon ikusten. Gaur gauza bat pentsatzen dut eta bihar beste bat. Musika zaletasun bat bezala ikusten dut, baina ez dut nire burua ikusten musikaz bizitzen. Nire bizitza osoan presente egongo dela bai, hori badakit. Bideoak egiten jarraituko dut. Agian kontzerturen bat egingo dut ere, baina orain koronabirusarekin...

11 Zer da musika zuretako?

Niretako musika bizitzan izan behar dugun zerbait da. Beti. Gaizki bazaude musika jartzen duzu, ongi bazaude musika jartzen duzu... Beti dugu presente.

EGUTEGIAK AGENDA



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

ZURE NAHIERARA EGOKITZEN DITUGU